

Ostatu-gauak EAEko apartamentu turistikoetan % 1,4 igo ziren 2018ko apirilean

Hotel, landetxeetako ostatu eta apartamentu turistiko guztietan % 1,3 egin zuten behera ostatu-gauak apirilean

2018ko apirilean EAEko apartamentu turistikoetan erregistratutako ostatu-gauak gora egin dute 22.967ra; %1,4ko hazkundera, aurreko urteko apirilean izandakoen aldean, Eustatek landutako datuen arabera.

Ostatu-gauak urte arteko eboluzio positiboa izan dute Araban (% 25,9) eta Gipuzkoan (% 7,2); Bizkaian, berriz, behera egin dute (% 16,1).

Bestalde, EAEko apartamentu turistikoetan ostatua hartu duten bidaiarien sarrerak 5.736 izan dira 2018ko apirilean; % 23,4 egin dute behera, hortaz. **Kontuan hartu beharra dago, datu horiek interpretatzeko garaian, 2017ko Aste Santua apirilean izan zela, eta aurten, Pazko Igandea eta Pazko bigarrena salbu, martxoan izan dela.**

Lurraldeen arabera, bidaiarien sarrerek gora egin dute Araban (% 50,0), baina behera egin dute Bizkaian (% 33,3) eta Gipuzkoan (% 29,2).

1. taula.- Euskal AEko hotel-establezimenduetako gualdiak, bidaiarien sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. 2018ko Apirila

	Gualdiak		Sarrerak		Batez besteko egonaldia	
	04/2018	m/m-12 (%)	04/2018	m/m-12 (%)	04/2018	04/2017
EUSKAL AE	22.967	1,4	5.736	-23,4	4,00	3,02
Estatukoak	17.170	-0,1	4.117	-25,0	4,17	3,13
Atzeritarrak	5.796	6,3	1.619	-19,1	3,58	2,72
ARABA/ÁLAVA	6.906	25,9	1.124	50,0	6,15	7,32
Estatukoak	6.092	25,8	1.011	41,2	6,03	6,76
Atzeritarrak	814	26,9	113	240,5	7,23	19,39
BIZKAIA	8.431	-16,1	2.611	-33,3	3,23	2,56
Estatukoak	6.033	-13,4	1.853	-33,1	3,26	2,51
Atzeritarrak	2.398	-22,2	758	-33,9	3,16	2,69
GIPUZKOA	7.630	7,2	2.001	-29,2	3,81	2,52
Estatukoak	5.046	-6,3	1.253	-37,5	4,03	2,69
Atzeritarrak	2.584	49,5	748	-8,8	3,46	2,11

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Batez besteko egonaldia 4,00 egun izan dira apirileko azken hilabete honetan; gorakada nabarmena, 2017ko apirilean izan ziren batez besteko 3,02 egunen aldean. Araban, behera egin du joan den urteko apirileko 7,32 egunetatik aurtengo apirileko 6,15 egunetara; Bizkaian, gora egin du 2,56 egunetatik 3,23 egunetara; eta Gipuzkoan batez besteko egonaldiak gora egin du 2017ko apirileko 2,52 egunetatik aurtengo apirileko 3,81 egunetara.

Turisten balantzea 2018ko apirilean

Hotel, landa-ostatu eta apartamentu turistiko guztietan 275.981 sarrera erregistratu dira 2018ko apirilean; beraz, % 2,1 egin dute behera, joan den urteko apirilaren aldean. Bizkaian biltzen da EAEko sarrera guztien % 45,2, eta sarreraren baturak % 2,0 egin du behera. Gipuzkoan, non EAEko sarreraren % 40,6 biltzen den, %1,6 egin dute behera, eta Araban, non EAEko sarreraren % 14,2 biltzen den, % 3,7 egin dute behera.

Gau-ostatuek, establezimendu turistiko hartzaile guztietan, % 1,3 egin dute behera; Bizkaian gora egin dute (%0,5), baina behera egin dute Araban (% 3,5) eta Gipuzkoan (% 2,5).

2. taula.- Euskal AEko landetxeetako gaualdiak, bidaiarien sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. 2018ko Apirila

	Gaualdiak		Sarrerak	
	04/2018	m/m-12 (%)	04/2018	m/m-12 (%)
EUSKAL AE	542.644	-1,3	275.981	-2,1
Araba/Álava	76.002	-3,5	39.162	-3,7
Bizkaia	246.650	0,5	124.674	-2,0
Gipuzkoa	219.779	-2,5	112.145	-1,6

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62